





Ibarra eta Lizarra iaz senidetu ziren jai giroan ospatu zuten Euskal Herria Egunean. R. CALVO

## Ibarraren eta Lizarraren senidetze ekitaldira joateko deialdi berezia egin dute

**Euskal Herria Eguna** » Irailaren 18an ospatuko da Nafarroako herrian; Ibarrik bertara joateko autobusa jarri dute.

### ASIER IMAZ

Ibartar guztiak irailaren 18an, larunbatean, zita berezi bat dute Lizarran: Euskal Herria Eguna.

Izen potolo honen atzean helburu potoloago bat aurkitzen da, hau da, bi herrien arteko senidetzea.

Ibarrako Bai Euskal Herriari ekimenak herritar guztiak gonbidatu ditu Lizarrara.

### Deialdi berezia «ibartar sentitzen direnentzat»

2009ko urrian Lizarratik autobusa bat etorri zen Ibarra. Jai giroan, ibartar guztiak aurrean, bi herrien arteko senidetzea ospatu zuten orduan. Orain, ekitaldi bera egingo dute Lizarran, bertako herritarren aurrean.

Bai Euskal Herriari ekimenetik azaldu dutenez, «iaz Lizarrako senideek hartu zuten konpromisoari erantzuteko garaia iritsi zaigu. Ho-

rregatik, komenigarria eta eskertzekoa izango da ahalik eta jende gehien joateko irailaren 18an Lizarrara».

Bi herrien arteko senidetzea iaz jarri baldin bazen martxan, urte guztian zehar jarraipena izan duela aipatu dute Bai Euskal Herriari ekimeneko kideek: «Han eta hemengo elkarteak, gaztetxeak, kultur taldeak, dantza taldeak, kirolariak eta abar, urtean zehar harremanetan egon dira. Elkarrekin hainbat ekitaldi antolatu dituzte eta berriro ere Lizarran topatuko dira. Helburua ordea, ibartar hauekin batera gainontzeko herritarrek ere Euskal Herria Eguna gonbidatzea da, bi herrien arteko senidetzean herritar orok baitauka zeresana». Ondorioz, Lizarrara joateko ibartar sentitzea nahikoa

dela azaldu dute. Hori bai, «ongi pasatzeko gogoia izatea ere beharrezkoa izango da».

### Autobuseko eta bazkariko txartelak

Ibarrik 09:00etan irtengo da autobusa. Itzulerako berriz bi aukera aztertzen ari dira: «Lizarratik etxera etortzeko lehen autobusa 21:30ean irtengo da. Jendeak parranda egin nahi baldin badu berriz, 05:00etan beste autobus bat egingo da».

Izena emateko aukera Ibarriko taberna desberdinetan aurkitzen da. Bazkarirako txartelak ere puntu haueetan jarri dituzte. Autoz joan nahi duenak ere izango du horretarako aukera.

Hitzordua beraz jarri aurkitzen da: 10:00etan Lizarran.

### » EGITARAUA

#### Irailak 18, larunbata

- **09:00etan.** Autobusa irtengo da Ibarriko plazatik.
- **10:00etan.** Ongietorria Lizarrako gaztetxean.
- **11:00etan.** Kalejira zantzar, gaitero eta trikilariekin.
- **11:30etan.** Dantza erakustaldia.
- **Ondoren.** Hamaiketakoa.
- **12:30etan.** Bi herrien arteko sokatira proba eta herri kirolak.
- **13:30etan.** Senidetze ekitaldia.

- **14:00etan.** Bazkaria. Helduek 12 euro eta hauek 6 euro.
- **Ondoren.** Bertsolariak, musa, ume jokoak...
- **18:00etan.** Gaitapunk eta txaranga elektrikoak Lizarran zehar.
- **20:30etan.** Afari merienda La Bota elkartearen.
- **21:30etan.** Itzulerako autobusa nahi duenarentzat.
- **Ondoren.** Kontzertuak eta Dj-ak.
- **05:00etan.** Itzulerako autobusa.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Baserri edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuek deitu dezatela ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

### SALGAI

■ **Aitzariak.** Egoera onean dauden haritzeko hainbat altzari saltzen ditut. Interesatuek deitu 628 69 88 07 edo 666 61 57 66 telefono zenbakietara.



## Ramadanaren amaiera ekitaldia

**TOLOSA** » Eskualdeko musulmanak Tolosako Kultur Etxean elkartu ziren atzo Ramadanari amaiera emateko asmoz. 08:30ean hasi zuten ospakizuna. Lehenik errezoen txanda izan zen eta ondoren, 10:30ean, jaki desberdinak janzten ospatu zuten Ramadanaren amaiera. Ramadanak baraualdia esan nahi du eta islam erlijioaren ospakizunik handiena da. Hila-bete batean zehar, eguzkia dagoenean, musulmanak baraualdian egoten dira Ramadanak irauten duen bitartean. HITZA

## Izaskungo ermitan meza berezia bihar 11:00etan

**Ibarra** » Katolikoek Izaskungo Amabirjinaren eguna ospatzeko antolatu dute ekitaldi berezia, Musika Kapera eta guzti.

### ERREDAKZIOA

Irailaren 8an Izaskungo Amabirjinaren eguna izan zen. Arrazoi horregatik, bihar Ibarriko auzoan dagoen ermitan katolikoek meza berezia egingo dute.

11:00etan hasiko da ekitaldia eta Ander Letamendiak zuzentzen duen Musika Kapera hainbat kantu eskainiko ditu. Besteak beste ondorengo hauek interpretatuko dituztela jakinarazi dute: *Izaskungo Amabirjinaren ereserkiak, Erruki Jauna, Aita Gurea eta Gurtu dezagun Jesus*.

Musika Kapera guztira 70 kidek osatzen dute. Sokazko instrumentuak jotzen 20 lagun egongo dira eta organoarekin Pepe Arzeluz ariko da.

## Independentziaren olatua iritsi da gurera

**Tolosa** » Independentziaren aldeko Tolosaldeko herritarrek deitu dituzte hilaren 14ean egingo duten batzarrera.

### ERREDAKZIOA

*Independentziaren olatu berdea* martxan jarri da Euskal Herrian uda honetan eta «Tolosaldeari orain egokitu zaio olatu gainera

gotzen hasiate». Helburu honekin, hurrengo asteartean, irailaren 14an, Tolosako Kultur Etxean estraineako bilera egingo dute 20:00etan, *Independentziaren olatu berdea* eskualdean abian jartzeko asmoz.

Ekimenaren sustatzaileek Tolosaldeko independentista guztiak gonbidatu dituzte Trianguloa plaza aurkitzen den Tolosako Kultur Etxean egingo den ekitaldi honetara.

**Mahala**  
BASERRAKO PRODUKTU NATURALEK

**Jogurta**

Mahala Dinerria - 50491 LEIZOLU  
Tel. Fax: 943 673 499  
Tel. Mób: 689 805 633



Txondorra eraikitzea ere artea da. Egurra mailaka jarri behar da. Lodienetik hasi eta arbaztak arte. XABIER ARTOLA



Su emango zaio txondorrari, egunak emango ditu ketan. XABIER ARTOLA



Egurak egosi egin behar du mantso-mantso, erre gabe, behar bezala ikaztuko bada. XABIER ARTOLA



Hasieratik erdi-erdian jarri den haga izango da txondorraren ardatz: *alkatea*. XABIER ARTOLA



Txondorrari etengabe egin behar zaio kontu. XABIER ARTOLA



Txondorra zabaldu eta irekitzeko unea iristen da. Itzali eta gero, ikatza ateratzea ere lan nekeza da. XABIER ARTOLA

## 'Ikiliko txondorra' liburuan jasota

**Alkiza** » 83 argazkirekin osatutako liburua da. Azalpen laburrak eta bertso batzuk baino ez ditu. Itxurain bildumaren lehen alea izan da.

### ENERITZ MAIZ

Atzo, Tolosako Kultur Etxean aurkeztu zuten *Ikiliko txondorra* liburua. Aurkezpenean, Pello Joxe Aranburu (Itxurain proiektuaren bultzatzailea), Xabier Artola (argazkilaria) eta Koldobika Jauregi (Ur Mara argitaletxea) izan ziren.

*Ikiliko txondorra* liburua, argazki bidez osatu dute. 2009. urteko maiatzean, Alkizako Ikilasagasti baserriaren ondoan egin zuten txondorra, astebetez egon zen pizturik. Bertan, ateratako milaka argazkietatik, 83 argazki aukeratu ditu Xabier Artola Zubillagak.

Testu laburrez lagundua dago eta bertso batzuk tartekatu ditu. «Ikazkinik ez da gehiago ikusiko euskal herrietako mendietan... argazkitarako ez bada» dio liburua-aren hasierak. «Argazkilaria bezala erronka bat izan da» zioen Artolak eta argazki hauek auzolana, festa... irudikatu nahi izan dute.

Itxurain, Alkiza uztartzen-en ekimenez sortua izan zen. Alkiza, beste herri asko bezala asko aldatu da. Eta bertako patrimonioa salbatu nahian, duela hiru urte sortu zu-

ten. Alkizan «altxorrik handiena natura dugu» gaineratu dute. Iaz txondorra egin zuten bezala, txerri festa ere egin zuten, garo metak, idiak... eta orain esku artean, sagarra eta sagardoa dituzte. Hitzeko elkarriketak biltzen ere hasiak dira.

Herri txikia izangatik (340 biztanle inguru), herritarren %30ek parte hartzen du proiektu hauetan. Eskola osoak ere, jorratu diren gai ezberdinen inguruan parte hartzen du.

«Oso polita da» baina honelako proiektuak «ia ez ditu inork laguntzen» azpimarratu zuten. Ur Mara argitaletxe sortu berriak argitaratua izan da eta Alkizako Udala eta Oilategitik herri aldizkariaren laguntza izan dituzte. Liburu denda batzuetan edota Alkizako bi tabernetan erosi daiteke. «Bilduma bati hasiera» eman diotela azaldu zuten. Honen atzetik, Itxurain liburu bilduma osatzeko liburu gehiago etorriko dira. Gai ezberdinen ingurukoak izango dira.



**Musika** » 21:00etan hasiko da Bonberenea Sutan jaialdia; Anari, Atom Rhumba, Doctor Deseo, Ama Say eta Sexy Sexers taldeak ariko dira; ondoren, DJen txanda izango da.

**ERREDAKZIOA**

Era ikusgarrian ekingo dio Bonberenea aurtengo kontzertu denboraldiari. Izan ere, Bonberenea Sutan jaialdi erraldoia antolatu du gaueko Euskal Herriko bost talde entzutetsuren parte-hartzearekin. Anari, Atom Rhumba, Doctor Deseo, Ama Say eta Sexy Sexers igoko dira Bonberenearen kanpaldeko futbol zelaian jarri duten eszenatokira. 21:00etan hasiko dira zuzenekoak, eta behin hauek amaituta, 03:00ak aldera, DJen txanda izango da, Txakapatata brothers-ena, hain zuzen.

Osagai horiekin, musika festa polita aurreikusten da, beraz, gaur gauean Bonberenean. Bada, festa borobiltzeko jatekoa ere bertan izango da eskura, bokataka jarriko baituzte salgai. Gainera, kontzertuak 21:00etan hasiko diren arren, 19:30etik aurrera Bonbereneako ateak zabalik izango dituztela azaldu dute.

Jaialdirako sarrerak 15 euroren truke eskura daitezke, Tolosako Eguzki, Orbela, Denak eta Meskal tabernetan.



Anari Alberdi, Anari. HITZA

**Anari**

■ **Bakarlarria.** Azkoitian jaio zen 1971n. 1997an hasi zen musika munduan. Sei disko grabatu ditu, eta horietako bat Petti musikari nafarrarekin elkarlanean.

■ **Diskoak.** *Anari* (Esan Ozenki, 1997); *Habiak* (Esan Ozenki, 2000); *Anari ta Petti* (Metak, 2003); *Zebra* (Metak, 2005); *Anari Kafe Antzokian Zuzenean* (Bidehuts, 2008); *Irla izan* (Bidehuts, 2009).

■ **Musika.** Doinu goibel eta bakar-  
tiak, hitz biluziak eta atmosfera  
ezerosoak daude bakarlarriaren  
lanean eta kritika ezin hobek jasotzen  
ditu, PJ Harvey, Cat Power edo  
Nick Cave-ekin alderatu dutelarik.

■ **Emanaldia.** 21:00etan, bere zuzenekoarekin hasiko da Bonberenea Sutan jaialdia.

# Jaialdi erraldoia Bonberenearen kontzertu denboraldiari ekiteko



Atom Rhumba taldeko kideak zuzeneko batean. HITZA

**Atom Rhumba**

■ **Taldea.** Bilboko rock musika taldea da, estilo eklektikoduna. Gaur egungo euskal talderik arrakastatsuenetakoa dela esan daiteke.

1997an kaleratu zuten lehendabiziko diskoa, eta orduetik bost lan batu dituzte. Abestiak ingelesez egiten dituzte. Rober (abeslaria), Iñigo Cabeza Fuego (baxujolea eta teklatua), Natxo (baterijolea), Joseba Irazoki (gitarrajolea) eta Jose Maria Gonzalez (saxofoi jolea) dira taldekideak. Rober abeslari eta gitarrajolea da sorreratik geratzen den bakarra. Barakaldoko musikaria da bandaren arima, bera baita kanta gehienek hitz eta musikaren sortzailea.

■ **Diskoak.** *Hormonal Riot* (1997); *Dirt Shots* (1999); *Chasin' the Onagro* (2001); *Backbone Ritmo* (2004); *Amateur Universes* (2006).

■ **Musika.** Bizkaitarrek rocka egiten dute, rock berezia. Bandaren musika eraginez galdetuzean 50eko hamarkadako rock & rolla eta punka dira aipatzen diren estiloak. Jarrera rockeroa, zuzeneko eta vintage soinua, fender soinua eta balbulazko anplifikadore zaharrak dira beraien ezaugarri nagusiak.

■ **Emanaldia.** Anariren emanaldia-  
ren ostean izango da euren txanda. 22:15ak inguruan igoko dira Bonbereneako eszenatokira.



Ama Say taldeko kideak. HITZA

**Ama Say**

■ **Taldea.** 90eko hamarkadan Ortuellan (Bizkaia) sortutako taldea da. Letrak ingelesez eta euskaraz nahasten dituzte. Hain zuzen ere, taldearen izena euskara eta ingeleza lotzen dituen hitz jokoa da, taldearen bereizgarrietako bat. Taldekideetako batzuek Zein? sortu zuten geroago, eta 2008ko azaroaren 14an berri elkartu zen Ama Say, zuzenekoak eskaintzeko. Ibon Bilbao (ahotsa eta gitarra); Karlos Alonso (baxua); Txabi Palacios (gitarra) eta Gontzal Bilbao (bateria) dira taldekideak.

■ **Diskoak.** Urte guzti hauetan bi disko luze eta single bat kaleratu dituzte, denak Esan Ozenki zigi-

luarekin. *Ikusi ditut umeak kalean ametsak akatzen* (Esan Ozenki, 1993); *No Iz pop* (Esan Ozenki, 1994); *Zuzeneko CD single-a*; *Say ama* (Esan Ozenki, 1994).

■ **Musika.** AEBetako rock talde alternatibo garaikideen soinu distortsioa eta melodiarako sena jorratzen dute, euskara eta ingeleza nahasiz erreferentzia literarioz jositako hitzetan. Pixies, Sonic Youth edo Charlattans bezalako taldeetan oinarritzen da euren musika. Mikel Laboa ere eredu dute «abangoardia izaten jarraitzen duelako».

■ **Emanaldia.** 01:00ak inguruan hasiko da euren kontzertua, Doctor Deseo taldearen ondoren.



Doctor Deseo taldeko kideak. HITZA

**Doctor Deseo**

■ **Taldea.** Doctor Deseo rock taldea da, 1980ko hamarkadan Bilbon sortua. Francis Diez, Josi Jimenez, Raul Lomas, Txanpi eta Aitor Agiriano Toro dira egungo taldekideak. Hasieratik mantentzen diren partaideak Francis eta Josi dira.

■ **Diskoak.** 1987an *Mucho se tiene que torcer la cosa para que esta noche no follemos* izeneko diskoarekin abiatu zuten ibilbide diskografikoa. Orduetik 12 disko grabatu dituzte: *Tan cerca del cielo* (1989); *Fugitivos del paraíso* (1992); *Gotas de dolor... un charco de olvido* (1995); *Hay cuentos aun por inventar* (1998); *Atrapado en tu silencio... de incertidumbres y caricias*

(2000); *Suspira... y conspira* (2002); *Rompeme con mil caricias, cielo... rompeme* (2004); *Meta-morfosis* (2005); *Detras de los espejos rotos* (2006); *Sexo, ternura y misterio* (2008); *Deseo, cartografía imposible* (2010).

■ **Musika.** Francis Diez abeslariak idazten dituen letrak izan dituzte ia beti euren abestiek. Horietan, gaua, drogak edo mina bezalako gaiak lantzen dituzte. Rocka lantzen dute, eta azken lanean, esaterako, flamenko eta arabiar ukituak ere nahastu dituzte.

■ **Emanaldia.** Hirugarren zuzeneko izango da bilbotarrena. Anari eta Atom Rhumba taldeen atzetik joko dute, 23:40 inguruan hasita.



Sexy Sexers musika taldeko partaideak. HITZA

**Sexy Sexers**

■ **Taldea.** Sexy Sexers 2001. urtean Beran (Nafarroa) sortutako euskal rock musika taldea da. Hasi-  
siera batean Ameba izena zuten, baina 2005eko ekainean Sexy Sexers izenarekin jotzen hasi ziren. *Mike Strangelove* Mikel Larrañe (ahotsa); *Jazz Suicide* Julen Irazoki (gitarrak, koroak); *Electric Child* Joseba Baleztena (gitarrak); *Freezer* Xiker Salaberria (baxua, koroak); eta *Fortun* Iñaki Gonzalez (bateria) dira taldekideak.

■ **Diskoak.** 2009ko irailaren erdialdera kaleratu zuten euren azken diskoa *Hero mantra*, Vulcom Entertainment disketxe kaliforniarrekin. Beste bi disko dituzte:

*Illuntze berri baten bila* (2006, Gaztelupeko Hotsak) eta *Urkamendi blues* (2007, Gaztelupeko Hotsak).

■ **Musika.** Berako Aduana zaharreko egoitzan entsalatzek hasi ziren, lehenbizi bertsoak eginez eta pixkanaka kantuak sortuz. Oraindik joera garbirik gabeko kantuak lehen aldiz urtebete beranduago agertuko zituzten zuzenean herrian bertan emandako kontzertutan.

■ **Emanaldia.** Azken zuzeneko eskainiko dute gaurko Bonberenea Sutan jaialdian. 02:00ak inguruan aurreikusi dute hasiko dela, eta kontzertua amaitzean DJen txanda izango da etxe barruan.





# Bertso saio bikaina, festak amaitzeko

**Jaiak** » Alkizan izango da 23:00etatik aurrera; Bedaion eta Zizurkilgo Elbarrenan ere izango dira ekitaldiak.

## ERREDAKZIOA

Oraindik ere festa giroa dute Alkizan, Zizurkilgo Elbarrenan eta Bedaion. Alkizan, hala ere, gaur bukatuko dituzte Jaiak, eta horretarako, Kantuki taldearen berbenaren aurretik, bertso saio bikaina izango dute Lizaso, Egaña, Arzallus, Lujanbio, Peñagarikano eta Zubeldia bertsolarien eskutik. Bedaion eta Zizurkilgo ingandean amaituko dituzte jaiak.

Atzoko egunari dagokionez, gazteak izan ziren protagonista Alkizan eta Zizurkilgoan, izan ere, lehenengoan Patxin eta Potxin pailazoak ikusteko parada izan zuten gazteek, ondoren, pixka bat zaharragoei, trikipoteorako, karakerako eta erromeriarako txanda emanaz. Zizurkilgoan ere 85 bat gazte bildu ziren bazkaltzeko eta ondoren jokoak izan zituzten.



Alkizan Patxin eta Potxin pailazoan emanaldia ikusi ahal izan zen eta Zizurkilgoan gazte bazkaria egin zuten. I. GARCIA

## » EGITARUAUK

### ALKIZA

#### Gaur, irailak 11

- **10:30.** Bizikleta lasterketa haurrentzat.
- **17:00.** Ion Zabala eta Izaskun Mendizabalen oroimenez, herritarren arteko Herri Kirol saioa.
- **18:00.** Sagardo dastaketa.
- **23:00.** Bertsolariak: X. Lizaso, A. Egaña, A. Arzallus, M. Lujanbio, A.M. Peñagarikano eta I. Zubeldia. Gai jartzaila: A. Agirre.
- **Ondoren.** Berbera Kantuki taldearekin.

### BEDAIO

#### Gaur, irailak 11

- **16:00.** Ume jolasak: Jokoak, buruhandiak eta txokolatada.
- **21:00.** Herri afari nagusia.

- **23:00.** Ansozregi eta Larrañaga eta Izer eta Alabier trikitilariekin erromeria, ordu txikiak arte. Goizaldera indarrak hartzeko baratxuri zopa eta txokolatzea izango da.

### Bihar, irailak 12

- **11:00.** Meza nagusia. Ondoren, hamaiketako.
- **13:00.** Bedaioko XXI. Txirrin্দulari goera (federatu gabekoentzat).
- **18:00.** Herri kirol jaialdia. Harri-jasotzailea: Aimar Irigoien. Aizkolariak: Larretxea eta Floren Nazabal. Ondoren bedaiotarrek Bedaioko Ingurutxo dantzatuko dute. Jarraian, Xanti-Katxo trikitilariak.
- **21:00.** Afaria (Mondejuak eta

ardi gisatua) Artubi Elkartean Trikitilarietz alaiturik.

- **00:00.** Jaietako amaiera emateko suzuria botako dute.

### ZIZURKIL

#### Gaur, irailak 11

- **11:00.** Jokolandia haurrentzako jolasak. Ondoren, buruhandiak.
- **11:30.** Artzain txakur lehiaketa Danena futbol zelaian.
- **13:00.** Lorontzi erakusketa eta lehiaketa.
- **14:00.** Herri bazkaria.
- **17:00.** Blusen arteko pentlatoia. Koadrilek bost jokotan parte hartuko dute, jokoetako bat asto karrera izango da.
- **19:00.** Asto karrera.
- **00:00.** Trakets berbera taldea

goizaldera arte. Mozorro gaua izango da.

- **07:30.** Diana trikitixarekin.

### Bihar, irailak 12

- **11:30.** Sardinak eta sagardo dastaketa Urkamendi elkartean eskutik.
- **13:00.** Motozerrarekin egurrari formak emanez erakustaldia.
- **19:00.** Herritarren dantza eta Melokotoiari agurra. Honen aurretik herrian zehar kalejiran ibiliko dira.
- **20:00.** Bertso saioa plazan: Anjel Mari Peñagarikano, Aitor Mendiluze, Sustrai Kolina, Xabier Silbeira, Iker Zubeldia eta Amaia Agirre. Gai-jartzaila: Jon Zaldúa.
- **23:00.** DJ Bull plazan.

## Laburrak

### Pilota eskolan parte hartu nahi dutenentzako deia

**VILLABONA** ● Behar-Zana pilota eskolak bertan izena eman nahi duten neska-mutikoen gurasoei bilera egin nahi du astelehenean, hilak 13, pilota eskolan bertan, taldeak eta ordutegiak antolatzeko. Horiek horrela, 17:00etan 6-7 urteko haurren gurasoen txanda izango da, 15:30ean 7-8 urtekoena eta bukatzeko, 18:00etan, 8-9 urteko umeen gurasoena.

### Euskal Jaiaren bazkarirako txartelak

**ANOETA** ● Urriaren 10ean ospatuko duten Euskal Jaiaren baitan 14:00etan egingo duten bazkarirako txartelak atera dituzte. Bazkaria frontoian izango da eta mondejua, bildotsa, letxuga-tipula, yogurra, kafea eta kopa banatuko dituzte. Tiketak Itzulin, Haizean, Arkupen, Buztinan eta Larian eskuratu daitezke 20 euroren truke (langabetuak eta ikasleak 15 euro, eta 8 urteko beherako umeak 10 euro) eta azken eguna urriaren 3a izango da. Tiketak soberan geldituz gero, egun berean, azokan, jarririk dituzte salgai 7 euro garestiago. Bestalde, jai antolatzeke hurrengo bilera astelehenean izango da, hilak 13, 19:00etan udaletxean.

### Legealdiaren balantzea egiteko galdeketa

**IKAZTEGIETA** ● Ezker Abertzalea hauteskondeei begira dago dagoeneko, eta beraz, bukatzeaz dagoen legealdiaren balantzea egiteko una ere iritsi zaie. Horiek horrela, herritarren artean galdeketa bat banatu dute. Erantzunak biltzeko jarriko diren buzoietan utzi behar dira astelehena, hilaren 13a, baino lehen. Buzoietako bat Kiroldegiko goiko sarrera ondoan egongo da, beste bat plazan eta azkena, udaletxeako buzoian ondoan. Galdegia eskuratu ez dutenek tabernetan aurkituko dute.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Eskuz banakako partida erakargarriak Larrunarrin

**Amezketak** » XXI. Joxean Tolosa Txapelketaren finalak jokoa bihar, 17:00etan hasita: Artola-Tolosa, Jaka-Arratibel eta Jaunarena-Onsalo.

IMANOL GARCIA

Zazpi-Itturri pilota elkarteak antolatzen duen Joxean Tolosa Txapelketaren finalak jokatuko dituzte bihar, 17:00etan hasita. Eskuz banakako jokatzen da Txapelketa eta hiru partida ikusteko aukera egongo da. Kadeteen mailan Artola alegiarrak eta Tolosa anoetarrak jokatuko dute finala. Gazteen mailan Jaka lizartarrak eta Arratibel ataundarrak jokatuko dute. Azkenik, nagusien mailan Jaunarena leizarra eta Onsalo aresoarra ariko dira txapelalortzeko lehian. Denak eskualdearekin lotura duten pilotariak, Arratibel ataundarra Aurrera Saiaz elkartekoa baita.

Xalton Zabala Zazpi Itturriko arduradunak azaltzen duenez, «maila handiko partidak ikusteko aukera izango da». Aurtengo Txapelketan pilotari gutxiagok hartu dute parte. «Kostu handia suposatzen zuen eta horregatik erabaki genuen aurtengorako pilotari kopurua mugatzea eta onenak ekaritzea», dio Zabalak.

Horrela, Iparraldeko, Bizkaiko, Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroako txapeladunak, zein Euskadiko txapeladunak edo txapeladunordeak gonbidatu dituzte eta aurretik Joxean Tolosa Txapelketa irabazi dituztenak ere bai. «Pena daukagu ezin izan direlako etorri Armendariz eta Zabaleta», azaltzen du Zabalak. «Txapelketa irabazi dute eta gonbidatu genituen, baina Munduko Txapelketarako Espainiako selekzionarako aurrehautatuak izan dira eta ez diete ehortzen utzi».

Antolatzaileak «oso gustura» daude Txapelketak ematen ari de-

nareskin. Partida onak ikusi ahal izan dira eta aurreko asteburuan izan ziren finalerdietan frontoia bete egin zen. «Aurrera begira ere horrela antolatzeko asmoa dugu», azaldu du Zazpi-Itturriko arduradunak.

## Norgehiagoka estuak

Maila handiko pilotariak direnez lehia borrokatua espero da hiru finaletan. Kadeteetan Artola da favoritoa. Bere mailan Euskadiko txapeladuna da eta Tolosa baino urtebete zaharragoa da. Tolosa Gipuzkoako azpitxapeladuna da. «Duten urtebeteko ezberdintasuna nabaritu egiten da adin horretan», azaltzen du Zabalak. «Halere kontuan izan behar da Tolosak kolpe handia duela».

Gazteetan Arratibelek oso zaila jarriko dio Jakari txapela. «Arratibelek dohain bereziak ditu: sakea, errestoa, bi eskuekin oso ondo, defentsan sotamanon ondo ibiltzen da eta bukatzeko arazorik ez du. Pilotari osoa da», dio Zabalak. Jaka kadetea da oraindik, baina maila handiagoan ibiltzen da. «Jakak kasta handia jartzen du eta partida oso ondo irakurtzen du».

Nagusietan Onsalo eta Jaunarena ariko dira lehian. «Onsalok banaka jokatzen asko daki, nahiz eta hemengo azken bi finalak galdu Armendarizen aurka», azaltzen du Zabalak. «Onsalok 25 urte inguru ditu eta pilotari egina da. Jaunarenak 18 urte ditu eta oraindik ere urduriegi egoten da. Baina ondo hasten bada eta gustura sentitzen bada, pilotari handia da, kolpe handia du». Beste partida gogor bi ikusteko aukera, beraz.



Duela bi urte Jakak kadete mailako txapela jantzi zuen. ANDER OTEZABAL



Artola alegiarra eta Jaunarena leizarra. HITZA/A. IMAZ

## Caminos Txindokiko marka hobetzen saiatuko da gaur

ERREDAKZIOA

Patxi Caminosek gaur ekingo dio berriro ere Txindokiko marka hobetzeko ahaleginari.

Iker Karrerak 24 ordutan 11 aldiz igo eta jaitzi zuen Aralarko mendia orain urte batzuk eta marka hori gainditzea da Caminosen asmoa. 17:00etan ekingo dio ahaleginari Larraitzeko langatik abiatuta.

## Hirugarren saiakera

Caminosen hirugarren saiakera izango da gaurkoa. Iaz egin zuen lehenengoa, baina ondoezik utzi egin behar izan zuen marka ahalegina. Honakoan sei aldiz igo zen tontorrera.

Aurten, aurreko uztailan, egin zuen bigarren saiakera, Ehunmilak probaren egun berdinean, baina, bidea erabat lokaztuta zegoen, erorikoa izan zuen eta bertan behar utzi zuen.



AUKERA HANDIA ETA GUZTIA

# Kalitatezkoa

EDARIAK

ELIKAGAIAK

JANTZIAK

DISKOAK, LIBURUAK, DVDAK...

ESKULANCINTZA

400

PREZIOEN BARRIK



www.euskalherriko plaza.com



SARTU ETA EROSI GUREAN



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Azoka

■ **Villabona.** 09:00etatik aurrera Elikagaien XV. Azoka Berezia egingo dute Txermingo Ikastolan. Euskal Herri osoko 30 postu izango dira bertan. Isats gisatu lehiaketa ere egingo dute. Azokan parte hartzen dutenak 14:00ak joango dira bazkaltzera Irintzi elkartera.

### Jaiak eta Kultur Asteak

■ **Alkiza.** 10:30ean bizikleta lasterketa haurrentzat; 17:00etan Ion Zabala eta Izaskun Mendizabalen oroimenez herri kirolak; 18:00etan sagardo dastaketa; 23:00etan bertso jaialdia; ondoren Kantuki.

■ **Bedaio.** 16:00etan ume jolasak, buruhandiak eta txokolatada; 21:00etan herri afaria; 23:00etan trikitilariekin erromeria. Goizaldera baratxuri zopa eta txokolatea.

■ **Tolosa.** Extremadurako Astea La Jara Elkarteak: 16:00etan karta txapelketa eta 20:30ean Aulaga folk taldearen kontzertua Plaza Berrian.

■ **Zizurkil.** 11:00etan haurrentzako jolasak; odoren buruhandiak; 11:30ean artzain txakur lehiaketa Danena futbol zelaian; 13:00etan Lorontzi erakusketa eta lehiaketa; 14:00etan bazkaria; 17:00etan Blusen pentlatoia; 19:00etan asto karrera; 00:00etan Trakets taldea; Mozorro gaua izango da; 07:30ean diana trikitixarekin.

### Ikuskizunak eta musika

■ **Leitza.** Nafarroako Euskal Dantzarien Eguna: 17:00etatik 18:00etara herriko gune ezberdinetan dantza emanaldiak izango dira. Ondoren kalejira egingo dute; 19:00etan ekitaldi nagusia izango da herriko plazan; 22:00etan afaria egingo dute plazan; eta ondoren erromeria ere izango da.

■ **Tolosa.** Bonberenea Sutan jaialdia Bonberenean, 21:00etatik aurrera: Sixty Sexers, Ama Say, Doctor Deseo, Atom Rhumba eta Anari eta TxakaPatata Brothers DJ's.

### Zinema

■ **Tolosa.** Leidorren, 19:30ean eta 22:30ean, *Un sueño posible*.


### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 6013.

■ **Lekunberri.** Mendia M.I. Aralar kalea, 25. 112.


HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.

# Londrestik Kantabriara



● Josu Reguerok argazki hau bidali du Argazki Lehiaketan parte hartzeko: «Londresen izan gara udan eta ikusgarria iruditu zaigu parlamentua gauetz». JOSU REGUERO

● Argazki honekin hartuko du parte Irati Reguerok Argazki Lehiaketan: «Londresko Candom Town auzoa da honako hau, erosketak egiteko aproposa; errotuluak ikusi besterik ez dago». IRATI REGUERO



### BERASTEGI ●

Iban Agirrezabalak argazki hau bidali du: «Abuztuan, Nojan ateratak da. Bertan ikus dezakeguna Playa de Trengandin-etik Playa de Ris-era doan ibilbidea da. Zuhaitzez osaturiko baso txiki bat da eta itsasoa ingurutik paseatuz, kala txikiak aurki ditzakezu. Ibilbide zoragarria da».

IBAN AGIRREZABALA